

hura
zorrotzuz

intelektualak eta politika

JOAN MARI TORREALDAI

Kaleratu berria da Euskal Herriko lau gotzainen gutuna. Hori eskandalua sortu duena! Hanka sartu omen dute. Politikan sartu omen dira (Bainan kasu! Ez dira politikan sartu ETA kondenatu dutelako, ez, baizik eta Armada «ikutu» dutelako). Klerikalismoa omen da hori.

Bego. Baina nork erabakitzen du hori denori? Klero berriak, «klase politikoak».

Gero eta kezkatuago nago klase politikoarekin. Hitzegin


dezakeen bakarra, eritzia eman dezakeen bakarra, badirudi politika-gizona dela. Nork erabakitzen ditu balioak, eritzien zuzentasuna, jokabideen egokitasuna, salakuntzen oportunitatea? Politikoak! Informazioaren eta zuhurtziaren segetetua politikoak du nonbait. Politikoak daki, eta berak bakarrik, zer esan behar den, noiz eta nola esan behar den. Klase politikoa, gainera, bere eskubidean babesle kupidagabea da. Ez dukanpoko interbentziorik onartzen.


Politikoaren eta politikaren gehiegizko presentzia honek betidanik kezkatu nau. Are gehiago, ordea, Tejero Parlamentutik igaro ondoren. Atzeraka goaz askatasunean, demokrazian, klase politikoaren «baimenez». Ezin, baina, holakorik goraki esan eta aztertu, politikoa ez ba-

zara. Eta nola esan politiko «responsablea» bazara?

Burutazio hauetan nenbilela, Lopez Aranguren intelektualaren elkarrizketa bat irakurri dut ERE aldizkarian. Pozik irakurri dut. Berak idatzia da: «El intelectual no debe casarse con nadie» eta «no debería militar en partidos políticos»

Duela pare bat urte igoyal ez nion arrazoirik emango. Gaur bai. Sartreren «engagement» defendizetik gatoz etorri ere. Inte-





lektualaren konpromezua, ordea, ez da gaur askok aldarrikatzen duena. Konstatazio bat: gero eta nekezago aurkitzen da intelektual eta kulturgizon librerik, esan nahi baita, agintearen edo / eta alderdiaren aparatutik libre denik. Situaturik doa jendea, politika jokura lerratuz, aparatuari egokituz.

Testuinguru honetan, intelektualaren lekua eta gizarte-funtzioa ataka larrian ikusitakoa da. Bi arrazoigatik.

Bat, intelektuala politikara hurbilduz akderdi politikoekin ezkondu egin delako sarri. Talde politikoen komenentzietara, haien jokura, alderdien esanetara jarri da. Begira ingurura. Ez gaude noski intelektualaren konpromezu politikoaren aurka, baina, Arangurenekin gogoratu dugu zein zaila den aparatuen

barruan askatasuna gordetzea. Askatasuna gorde ordez agintearen eta politikarien taktiken zuritzaile eta bide-prestatzaile bilakatu da intelektual eta idazle zenbait.

Intelektualaren gizarteko leku-galtzearen bigarren arrazoia, are larriagoa da, hasieran aipatu bezala: gure gizartean zaur dena da politika edo parapolitika. Politikak agintzen du, rots, joku politikoak, bertatik bertarako ekintzak. Klase politi-

koaren menpe gaude. Azter prentsa: politikoen eritziak, deklarapenak, eztabaidek betetzen dituzte periodikoak. Gainerako gizarte-arazoak huts dira, gainerako gizarte-alorrak zoko-zokoan utzi ditugu.

Politikaren protagonismoan eta tentazio totalitarioan gaude, ba, nere ustez. Horren aurrean inoiz baino bortizkiago errebindikatu behar dugu instantzia kritikoen premia, behinbehineko taktiketarik gizartea babesteko duen instantzia; ez honi, ez hari «salduko» zaion gizona. Horieta-koa da intelektuala. Lopez Arangurenek dioenez: «el intelectual debe ser el insobornable moralista de nuestro tiempo». Bai, euskal intelektualak, kulturgizonak, euskal idazleak badu zer errebindikaturik Euskal Herrian, politikariek batean batzutan, eta makina bat aldiz aurka.

